



ABALTZISKETA

2017KO SAN JUANETAN SOKA DANTZAREN 25 URTEURRENA ZELA ETA, BIDEO BATEN BIDEZ EKITALDIA BERA ETA BERE ENTSEGUEN ERAKUSTALDIA IZANGO DA.

Abaltzisketan, ekainaren 23an, San Juan bezperan ohikoa da SOKA DANTZA dantzatzea.

2017 urtean aldiz, esan behar da SOKA DANTZA berezia izan zela 25.urteurrena zelako.

Honen arira esan behar da, antolatzaileak udal honetan horrela jakinarazi digutelako, 2017ko San Juan bezperako SOKA DANTZA berezia grabatu egin zela eta ekitaldiarekin batera entseguak ere. Eta guztiarekin ikusentzun materiala prestatu da, grabaketa eta muntaia, eta horren erakustaldia egin nahi dutela.

Erakustaldia, ondoren adierazten den egunean izango da:

EGUNA: APIRILAK 14, LARUNBATA
ORDUA: 18:30ETAN
LEKUA: GOIBEGIKO AUDITORIUMNA
SARRERA: DOHAKOA

Asmo honen berri kanpoan bizi diren sendiei ere jakinaraztea nahiko litzateke.

Honetaz gain, erakustaldian aurkeztu behar den grabaketa eta muntaia udaletxeko ordenagailuan jasoko da. Eta nahi duenak bere materiala ekarri eta grabatzeko aukera izango du.

Beraz, antolatzaileek erakustaldira gonbidatzen zaituzte eta animatzea nahi dute.

Abaltzisketan, 2018ko apirilaren 5ean.